

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

468.216 herritarrek eman behar dute botoa igande honetan Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeetan

Foru Gobernuaren boto-zenbaketarako eta segurtasunerako dispositiboa osatuko dute datuen transmisioan parte hartuko duten 800 pertsonak eta Foruzaingoaren 460 agentek

Viernes, 20 de mayo de 2011

468.216 herritarrek eman behar dute botoa igande honetan Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeetan.

Foru Gobernuaren boto-zenbaketarako eta segurtasunerako dispositiboa 1.200 pertsonak baino gehiagok osatuko dute, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak emandako informazioaren arabera. Horrekin batera, udal hauteskundeak egingo dira, eta horiek Barne Ministerioak kudeatu behar ditu.

800 pertsona inguruk hauteskunde-mahaiak itxi ondoren emaitzak sistema zentralera transmititzen parte hartuko dute, 20:00etan, eta 460 foruzainek zazpi polizia-etxetatik egun osoan segurtasuna bermatuko dute. Horretarako, Barne Ministerioak Gobernu Ordezkaritzaren bidez jarritako Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteekin lankidetzan arituko dira. Operatiboan tokiko polizia ere parte hartuko dute.

Dispositiboa osatzeko, Nafarroako Larrialdi Agentziako eta organismo horrekin lankidetzan aritzen diren osasun-arretako eta boluntarioen kidegoetako agenteek parte hartuko dute. Horiek balizko intzidentziak artatuko dituzte eta mugikortasun-arazoak dituzten hautesleei lagunduko diete, hauteskunde-mahaietara joan eta boto-eskubidea gauzatu ahal izateko.

Segurtasun-dispositiboa

Foruzaingoaren segurtasun publikoaren dispositiboak Estatuko gainerako polizia-kidegoekin koordinazioan funtzionatzen du hauteskunde-kanpainaren hasieratik, alderdi politiko guztiek hauteskunde-proposamenak herritarrei normaltasunez aurkeztu ahal izateko. Foruzaingoak hausnarketa-egunean gerta daitezkeen intzidentziei arreta berezia eskainiko die eta batez ere larunbateko 21:00etatik asteleheneko 7:30era dispositiboa indartu egingo da. Hainbat unitatetako 460 agentek osatuko



dute, eta lurralde osoan arituko dira, besteak beste, Altsasun, Elizondon, Lizarran, Iruñean, Zangozan, Tafallan eta Tuteran.

Agente horiek hauteskunde-prozesua normaltasunez garatzea bermatuko dute. Zehatz esanda, foruzainek eta gainerako agenteek hauteskunde-mahaiak normaltasunez irekitzea eta lurralde osoko 986 mahaiak eratzea kontrolatuko dute, mahaietako kideei laguntza eta babesa emango diete eta txartelak banatzea bermatuko dute.

Era berean, hauteskunde-mahaietan edo inguruetan sabotaje-ekintzak edo pintadak egitea eragotzi eta hautesleengan mota guztietako presioak egitea saihestuko dute. Mahaiak itxi ondoren, beharrezko neurriak hartuko dituzte txartelen zenbaketa eta emaitzen zabalkundea normaltasunez garatu dadin eta kasuan kasuko hauteskunde-batzordeetan aktak eta txartelak ematea eta zaintzea babestuko dute. Foruzainek akta eta txartel horiek Nafarroako Hauteskunde Batzordearen egoitzan zainduko dituzte, Iruñeko Justizia Jauregian, hauteskunde-prozesua amaitu arte.

Datuak prozesatzeko zentroa

Txartelak zenbatzeko dispositiboari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren 739 ordezkari Foru Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeen emaitzen aktetako datuak transmitituko dituzte.

465 mahaitako datuak 71 agentek transferituko dituzte telefono mugikorretan gaitutako aplikazio baten bidez. Horri esker, emaitzak zuzenean bidaliko dituzte boto-zenbaketarako sistema zentralera. 2007ko hauteskundeetan Iruñeko eta Tuterako zenbait hauteskunde-mahaitan sistema horrekin egindako esperientzia pilotu onaren ostean, aukera hori Iruñeko eta Iruñerriko mahai guztietara zabaltzea erabaki da, baita Erriberako hiriburura, Lizarrara eta Tafallara ere.

Emaitzak transmititzearen ardura duten Foru Gobernuko gainerako kideek sistema tradizionala erabiliko dute, hau da, Nafarroako Foru Jauregiko datuak prozesatzeko zentrorra dei bat egingo dute. Leku horretan, 22 teleoperadorek emaitzak jaso eta aplikazioan sartuko dituzte. Operatiboa osatzeko, lau pertsona intzidentziez arduratuko dira eta 16 teknikari alderdi informatikoez eta emaitzen zabalkundeaz.

Informazioa herritarrentzat eta Caballeroren agerraldia

Datuak prozesatu eta Hauteskunde Zentroko zabalkunde sistemetara transmitituko dira. Hortik herritarrei eta komunikabideei zenbaketari buruzko informazio jarraitu eta gaurkotua emango zaie, interneten gaitutako lotura baten bidez, igandean

[Nafarroako Parlamenturako eta kontzejuetarako hauteskundeen](#) emaitzak jakin ahal izateko.

Mahaietako datuen transmisioan gerta daitezkeen arazoak (argia moztea edo sistema informatikoan kolapsoa gertatzea) saihesteko, intzidentziak kudeatu eta ebazteko sistema prestatu da, eta

[joan den astean antolatutako boto-zenbaketaren simulazioan](#) frogatu zen.

Boto-zenbaketen web orriak diseinu erraza du, datuen taulak eta grafikoak konbinatzen ditu. Horren bidez, hurrengo hauek kontsultatu daitezke: Nafarroako emaitza orokorrak, Nafarroako Parlamenturako botoak udalerrien, merindadeen edo barrutien arabera. Kalkuluen arabera,

www.navarra.es helbidean boto-zenbaketaren lehenengo datuak 21:00etan eskainiko dira gutxi gorabehera, eta prozesua gauzardiaren inguruan amaituko da. Emaitzen %100 zenbatu ondoren, hauteskundeetako web-orriak datuak kontsultatzeko eta grafikoak eta emaitzak lortzeko aukera gehiago eskainiko ditu.

Nafarroako Gobernuak komunikabideei informazioa eskainiko die boto-zenbaketako webaren bidez eta Foru Jauregiko prentsa-aretoan. Bertan kazetariak emaitzak eta haien lana egiteko beharrezko materiala izango dute. Javier Caballero Lehendakaria, Justizia eta Barne kontseilaria 22:00ak eta 23:00ak bitartean agertuko da emaitzak emateko, boto-zenbaketaren indize esanguratsua lortzen denean.